

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 243. alea - 2019ko abuztua



Iritsi dira
San Roke jaiak!



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



ASKETA, S.L.


ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PIRINEO EUSKO LABEL



Calbeton

JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**Euskararekin
Match!**



Egin gurekin bat

**19/20
Ikasturtea**
Matrikula zabalik

www.udaleuskaltegiak.eus



19/20
Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto

DEBA: 10:00-12:30 / 17:00-19:30
DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
Ifar Kalea, 12, - Tel.:943 192 236



**San Roke
jai
zoriontsuak**

IKASTAROAK

16 urtetik gorakoentzak
Matrikula Zabalik
IRAILAREN 25era arte
Langabetu, ikasle eta gurasoek,
Matrikula Erdia
Ikastaro amaieran BEKAK denentzat.
(Baldintzak betez gero)
Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez.
- Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.
Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariek eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)

AURKIBIDEA

05

ALBISTEAK

“Arima diskofesta” emanaldia eta Euskal Jaiko kartel lehiaketa, Zuhatzaren ekimenez

06

ELKARRIZKETA

Debarrak munduan: AEBetan bizi den Markel Aranberri debarrarekin hizketan

10

UDALEKUAK

Aurtengo Kolorez Blai euskal udalekuetan ateratako irudien bilduma

13

KOLABORAZIOA

Kalez Kale Txistulari Taldea, “Herrikoak berriketan” atalean

14

SAN ROKEAK

Zer berri aurtengo jaietan? “Zuen jolasa” ipuina, egitaraua egunez egun...

Berriketan aldizkariaren hurrengo alea, urrian!

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du *Berriketan* herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren erdialdean, jaien atarian, oporrak hartuko ditugu erredakzioan, baita Zuhatza Euskara Elkartean ere; hori dela eta, urtero bezala, irailean ez dela *Berriketan*-ik kaleratuko gogorarazi nahi

dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz!

Aldi berean, lerro hauen bitartez, herriko festetan zein oporraldietan ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren

berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian.

Bien bitartean, ondo pasa uda eta, batez ere, gozatu, baina ez ezazue euskara oporretara bidali! Badakizue, guk geuk nahia-go euskaraz!

Zuhatza Berriketan

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
euskaraz elkarrekin deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Ander Salegi

Publizitatea: Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

Denok batera presoak kalera



Uztailaren 20an Deba zehar-
SARE katu zuen Luhusotik Gernikara Sarek antolatutako *ORAIN PRESOAK* bizikleta itzuliak.

Ondoren, herriko kale ezberdinetan sakabanaturik zeuden espetxeetako kartelak jaso eta Foruen plazan pilatu genituen guztiak, euskal presoek sakanaketaren errealitate gordina agerian utziz.

Hamarkadetako sufrimendu eta minak garaitu eta guztiok merezi dugun etorkizun berri bat eraikitzeko

aukera dugu orain.

Sufrimendurik, biktima gehiagorik eta euskal preso eta iheslaririk gabe, elkarbizitza eta bakea oinarri dituen jendarte bat eraikitzea da gure helburua. Auzi hau behin betikoz konpondu behar dugu, gertatutako oro errepika ez dadin bermeak ezarri eta herri hau normalizazio egoera batera eraman.

Horretarako, gizartearen aktibazioan sakontzen jarraitu beharra daukagu eta lan honetan guztiok gara beharrezko.

Preso eta iheslarien auziari irtenbi-



dea ematea ezinbestekoa da benetako bake egoera lortu ahal izateko.

Korapiloak askatzeko garaia da.

Debako Sare

Izar berria

Hura berri samina
latz eta isila
etorri zitzaiguna
ezkilaz ezkila:
Mikel gure laguna
genuela hila
edo agian joan zen
izar baten bila.

Geroztik egunero
iluna heltzean,
zure bila jartzen naiz
gauaren beltzean.
Zerura begiratzen
dudan bakoitzean,
taupaka hasten da
irria nire bihotzean.



Zeru aldera begira
gauetz nintzen jarri
eta ilargia nuen
keinuka igarri.
Hemen denok dakigu
Mikel, horren berri:
izar artean dabil
alai eta irri.

Ezin gaitzeko, beraz,
heriotzaz mintza
bizirik dugu Mikel
irriaren giltza;
izarrak berarekin
algaraz dabilta
hara gora begira
triste bagabiltza.

Marian Larrañaga

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

ekodenda,
dietaetika,
belardenda

sasoiko

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podología

Lensandj, 14 943 19 24 42 sasoiako@hotmail.com

“Arima diskofesta” hartu zuen zumardiak, Kultur Errotaren baitan

Kultur Errotaren baitan antolatutako “Arima diskofesta” izan zen zumardian, joan den uztailaren 23an (asteartea). Zuhatza Euskara Elkarteak antolatu zuen ekimena.

Sargori zegoen, baina hamarnaka lagun bildu ziren hitzorduan eta

ekaitzak harrapatu zituen gero guztiak; nahi baino azkarrago amaitu zen, hortaz, emanaldia. Nolanahi ere, euskal kanten erritmora elkarrekin dantza apur bat egiteko aukera izan zuten behintzat hurrek eta helduek.



Badugu Euskal Jaia iragartzeko kartela



Dagoeneko badaukagu irailaren 28an (larunbata) ospatuko den garai berriko XXII. Euskal Jaia iragartzeko kartela. Sahararen aldeko proiektuan lanean dabilzan gazteek sortu dute kartel irabazlea, eta Elaia Oiarzabalek jaso du saria guztien izenean.

Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako kartel lehiaketaren aurtengo edizioan hamar lan aritu dira lehian, azken urteotako kopurua gaindituz. Lan guztiak uztailaren 18an egon ziren ikusgai plaza zaharrean, eta herritarrek boto bidez hautatu zuten kartel irabazlea. Arrakastatsua izan da

bozketa bera ere. Izan ere, guztira 587 lagun hurbildu zitzaizkigun beraien iritzia ematera, gustukoen zuten kartelari botoa emanez. 127 boto jasota irabazi du lehia goiko argazkian ageri den kartelak, bigarren lan bozkatuena-ri 37 botoko alde aterata.

Zuhatzak 300 euroko saria eman die dagoeneko irabazleei; dirua Sahararen aldeko proiektura bideratuko dute gazteek.

Eskerrik asko aurtengo bozketan parte hartu duzuen guzti-guztiori eta, nola ez, lanak aurkeztu dituzuenoi!

Zuhatza Euskara Elkarteak



ITSASO ARAMENDI

Nosedive

Bost izar eskuratzea da Lacieren helburua, *Black Mirror* teleaileko *Nosedive* kapituluaren. Lacie bizi den munduan, pertsonak une oro elkar kalifikatzen dituzte euren ekintzak, harremanak, argazkiak, itxura... Izar bat eta bosten artean balio ditu izandako jokaerak. Puntuazio gorena lortzea da bere amestetako apartamentua erosteko eta desio duen bizitza perfektua bizitzeko modu bakarra.

Atal hortaz oroitu naiz aireportuan komunaren garbitasuna kalifikatzeko kolore desberdinetako aurpegitxoak ikusitakoan. Pentsatzen hasi naiz zenbat izar jarriko nizkiokeen trenetik irteten utzi ez didan jende multzoari, bere zigarroaren kea bota didan lagunari. Eta galdetzen diot nire buruari zenbat izar emango lizkidakeen nahi gabe portaleko atea muturren aurrean itxi diodan bizilagunak, Whatsapp berehala erantzun ez diodan lagunak. Entretengarria iruditu zait hasieran, baina irudikatzeak urduritasuna ere eragin dit.

Are gehiago, jakitun teleaileko fikzioa errealitate bihurtzen ari dela Txinako Qingdao hirian. Abian da kreditu-sistema: herritarrek duten jokaera kalifikatzen da kamerek jasotako informazioan eta Interneten izandako aktibitatean oinarrituta. Puntuazioaren arabera sailkatzen da, kontrolatzen da jendar-tea. Onak eta txarrak. Jokoa daude zerbitzu publikoez gozatzeko aukera, maileruak jasotzea, lanpostu publikoa izatea...

Google-ek gure bizitzaz Orwellen *Big Brother*-ak baino gehiago dakien honetan, oraindik guztiz jabetu ez bagara ere, distopia hau dagoeneko bizitzen ari gara.



Debarrak munduan

MARKEL ARANBERRI

Virginiatik (AEB) jaso ditu *Berriketan*-ek ondoko elkarriketaren erantzunak. Markel Aranberri Anakabe da protagonista. 24 urte ditu eta lanean dabil gaur egun, ikasketak bukatu berri. Unibertsitateko ikaskek eraman zuten Estatu Batuetara; tenisean jokatzeko beka bat lortuta iritsi zen bertara.

Non zaude gaur egun? Zergatik?

Momentu honetan Estatu Batuetan bizi naiz, Virginian zehazki. Ikasketak bukatu ditut eta lanean nabil.

Zerk eraman zintuen horra?

Unibertsitatean ikastera etorri nintzen, tenisean jokatzeko beka batekin.

Zertan zabilta orain?

Gaur egun, marketing eta salmenta sailetan egiten dut lan resort batean (*The Greenbrier*). Tenis irakasle bezala ere banabil udaran zehar. Denbora librean, nik ireki dudana enpresa txiki batean ibiltzen naiz.

Espero zenuen bezalakoa da? Zerk harritu zintuen?

Kultura aldetik diferentzia nabarmena da; ohiturak, tradizioak... eta janari desberdinak daude Estatu Batuetan. Estatubatuarrek garrantzi handia ematen diote askatasunari eta berdintasunari, bai lanean eta bai sexuan.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Tamalez, ez ditut aukera asko edukitzen euskaraz hitz egiteko. Gurasoekin bakarrik hitz egiten dut, telefonoz. Euskaraz gehiago hitz egitea gustatuko litzaidake, eta nire ama hizkuntza sarriago erabiltzea.

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor? Hizkuntza txikirik edo?

Eguneroko hizkuntza ingelesa da. Aniztasun handia dago



unibertsitateetan eta hiri handietan. Hizkuntza horrez gain, gaztelania, txinera eta errusiera asko erabiltzen dira gunere askotan.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Ahalko banu, nire bizitzan garrantzitsuen dena ekarriko nuke, familia eta lagunak. Euskal Herria beti izango da nire etxea, nahiz eta denbora asko igaro kanpoan. Faltan gehien botatzen ditudan gauzak janaria, jendea, kultura eta ohiturak dira.

Bestalde, Estatu Batuetan lan eskaintza ugari daude; hau da hemen egotearen arrazoietakoa bat, beste askoren artean. Uste dut edozeinentzako aukera handi bat dela bidaiatu ahal izatea eta eguneroko gauza berriak ikastea.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai. Euskal Herrian bizitzea gustatuko litzaidake. Oraindik gaztea naiz eta beste plan batzuk ditut momentuz. Baina etorkizun batean bueltatuko naiz, dudarik gabe.



Laburrean

Paisaia bat:

Kontxako hondartza

Usain bat:

pinu zuhaitzena

Zapore edo jaki bat:

amaren kroketak

Gustuko dut...

kirola eta janaria

Ez dut gustuko...

negua

Amets bat:

munduan zehar bidaiatzea

Kimetz Etxabek agurtu du kadete maila



2019ko denboraldia, kadete mailako azkena, luzea izan da Kimetz Etxaberentzat. Azaroan pistan hasitako denboraldiari uztailearen 28an Azpeitian eman dio amaiera. Pistakoa oso denboraldi ona izan zen, Espainiako txapelketetan errearekin lehertuz. Errepideko denboraldia ona izan da, baina distira pixka bat falta izan zaio; agian izandako erorikoetan bilatu eta aurkituko da arrazoa, ez baita denboraldi erraza izan alde horretatik.

Beasainen 25. postu batekin ekin zion errepideko denboraldiari Viveros San Anton taldeko ziklistak, eta 21. postu batekin amaitu du Azpeitian. Bederatzi aldiz sailkatu da lehenengo hamarren artean eta hori oso datu adierazgarria da, 19 lasterketa egin baititu errepidean.

Emaitzarik onena etxean lortu zuen: hirugarren sailkatu zen Deban eta esan daiteke garaipenetik gertuen ere bertan izan zela. Beste hirugarren postu bat, brontzezko domina, bakarkako erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketan lortu zuen. Laugarren, berriz, iraupeneko Gipuzkoako txapelketan gelditu zen; Oñatin helmugako argazkia (*photo finish*) behar izan zen podiuma bai ala

ez erabakitzeke, lasterketa eder bati amaiera emanez. Zumaian zazpigarren bukatu zuen, Arrasaten bezala, zortzigarren Azpeitian eta Zestoan, bederatzigarren Atarrabian (gaztetxoak torneoan, Euskal Herriko kadete guztiekin batera) eta hamargarren Tolosa-Amarozen. Emaitzarik kaskarrena Urretxun izan zuen, 62. postuan sailkatuz -baina lasterketa zoragarri bat egin da, ibilbidearen hiru laurdenak ihes eginda, bakarrik egin ostean, eta fabori-toak estu-estu hartu ondoren-.

Era guztietako ibilbideak izan dituzten karrerak dira, ordekan jokaturak, menditsuak, esprintean bukatu direnak eta guztietan antzera ibili da Kimetz Etxabe, bere orotariko gaitasunak erakutsiz, nahiz eta asko nabarmendu den erlojuaren aurka; eta hori, adituen ustez, berezkoa baduen seinale izan ohi da. Aipatu dugu bakarka 4. sailkatu zela; taldekakoan, berriz, garai-le, Viveros San Antongo taldekideekin Gipuzkoako Txapelketa irabaziz, marka handi bat eginez -taldearen ekimenean arduraren handienetakoa berea izan zen, erreleboetan pisu handiko lana egin behar izan zuen, nahiz eta egun batzuk lehenago erori eta zauri eta kolpe latzak izan-. Errepideko denboraldiari, beraz, nota ona jarri behar.

Kadete mailatik jubenetarako urratsa emango du Kimetz Etxabek 2020an, mailara egokitzeaz gain, txirrindulari bezala haztea ere helburu hartuta; urrats ez urrats aurrera, ametsak egi bihurtu nahian, sakrifizioak eta lanak ez baitute izutzen Debako gaztea.



MARI SEARA

Kasketak

Zenbat aldiz ikusi dugu haur bat negarrez, oihuka, desitxuratuta... Familia aurretik eta haurra ahotik pasatzen zaizkion gauza ulertezin, zikin, txar... eta entzun nahi ez ditugun horiek esaten. Badakigu haserre dagoela, eta ez daki barneko su hori nola itzali.

Badago *Haserre gorria* izenburuko ipuin bat, oso ondo azaltzen duena haserreak inbaditzen gaituenean kontrolgabe-ko hainbat gauza burutzen ditugula; eta egin dugunaz ohartzekoan, su gorri txiki hori kutxa batean gorde eta egindakoa nola konpondu pentsatzen jartzen gaitu. Haserre gorri horietako asko erregearen aulkia galdu duten horiek dira. Etxeko erregeak izateari utzi diote, eta lehen zeuzkaten pribilegio guztiak murriztu egin dira, konpartitu egin behar direlako. Kosta egiten zaigu, bai, onartzea jada ez garela etxeko erregeak, eta harriak botatzen ditugu nonahi, buruan joz gero zein kalte egin dezaketen konturatu gabe, ezta?

Haurren kasketak ondo ezagutzen ditugu, bai. Baina helduok nola gestionatzen ditugu haserre gorri horiek? Guk ezin ditugu harriak bota, edota ostikoak jo, edo tximetatik tira... Edo bai? Ez dugu egiten? Egiaztatu gabeko mezuak bidaliz, kontatu didatelako... "Min" egin digun horrek buelta ematen duenean, ahotik zuzen-zuzen ateratzen diren harrikadak botaz... Helduok nola kudeatzen ditugu gure barruko minak? Munstro gorria baretzeko gai al gara? Behin ateraz gero, egindako kalteak konpontzeak izango du bere lana...

Haurrei, haserre direnean, adierazten diet Porrotzek sarritan erabiltzen duen esaldia. "Sentitu, pentsatu, egin"; sentitu eta egin dutela, baina pentsatzea ahaztu egin zaiela (gai ez direla jakin arren). Helduok arrazionalak izanik, izango dugu gaitasun hori, ezta?

Miarritzen izan ginen kantuan, Arroka Elkartearen 40. urtemugan

Kalean Kantuz taldeko kideok ditugun ohituren artean kutunenetako bat da beste herri batzuetara joan eta bertakoekin batera kantuan aritzea. Urtean behin egiten dugu irteera nagusia eta aurten Miarritzera izan da, bertako Arroka Elkartek ospatzen zuen 40. urteurrena aitzakiatzat hartuta.

Miarriztarrekin tratua itxi genuenetik izan dugu lanik gure artean, besteak beste, kantatu beharreko piezak aukeratu eta prestatzeaz gain, hoguei lagunetik gorako gizataldea garraiatzeko prestakizunak. Azkenerako, 18 partaidek egin genuen bidaia.

Hitzordua ekainaren 22rako genuen. Ia ordu eta erdiko bidaia autobusez eta aperitif bikain baten ondoren, kantaldiari eman zitzaion hasiera, danborradarekin batera itsasertzetik



kasinora bidea eginez. Eguerdiko 14:30ean bazkari zinez ona genuen parte-hartzaile guztiok. Jakina, bazkari-legea egin orduko, ezin kantu nola dantzarik falta.

Guztiaren gainera ezer nabarmenezkotan, gure lagun miarriztarrek zein ongi zuten dena antolatutik.

Gogobeteko eguna pasa ostean, etxeratzeko autobusa hartu eta iluntzeko 20:30erako itzuli ginen Debara.

Abuztuan oporraldia izango dugu denok ere, baina irailean berriro ere ekingo diegu entseguei.

Debako Kalean Kantuz

Aparteko erakustaldia Nazioarteko Folklore Jaialdian



Uztailaren 26an izan zen Nazioarteko Folklore Jaialdia. Apartekoa izan zen Gure Kai Euskal Dantzari Taldeak eta Serbiatik etorritako dantzari gonbidatuek zumardian egindako



erakustaldia. Karpa lepo beteta eta giro bero-beroa; horren adierazle izan ziren bi taldeei eskainitako txalo zaparrada, txistu eta irrintziak.

iritzia



**LEIRE
AGIRREBEÑA**

Sarritan kotxearekin kilometro pila bat egin edo hegazkina hartzen dugu munduko txoko ederrak ezagutzeko, inguruan dugunari benetan erreparatu gabe.

10 urte baino gehiago eraman arren kostako herri lasai honetan bizitzen, aitortu beharra daukat duela pare bat urte iritsi nintzela Santa Katalinara. Lehenengo aldiz igo nintzenetik, benetan harrিতuta gelditu nintzen bertako lasaitasunarekin, inguruarekin, eta, nola ez, handik ikusten den euskal kostalde ederrarekin.

Herrigunetik oinez 45 minutu eskasera, nahikoa da 200 metroko altuerara igotzea, bertara joan eta naturarekin bat arnas garbia

Etxe ondoko altxorra

hartzeko. Duela gutxi berriro duten Kantauri itsasorako leihoan eseri eta goiza pasa daiteke bertan, aspertu gabe, inguruko mendi eta itsaslabarrari begira.

Errepidetik mendi gainera begiratzean ere, han dago beti Santa Katalinako ermita, tinko, harrizko paretak eta zuhaitz gutxi batzuen ondoan, irudi benetan ederra eskainiz.

Opor sasoian murgilduta gauden honetan, gomendio bat luzatu nahiko nizueke: inguruan ditugun altxor txikiez gozatu eta, kanpora joanez gero, betiko turismo tokiez gainera, tokian tokiko hain ezagunak ez diren altxor naturalez disfrutatu.



Bizipen esanguratsuen bitartez, ikasi!

Uztailean alde batetik bestera ibili gara eta horrek, dudarik gabe, esperientzia ahaztezinak eta ikaskuntza handiak ekarri dizkigu.

Talde txiki zein handietan irteerak egiteko pribilegioa izan dugu; hor ditugu, adibidez, Bilbora egindako txangoa, Gaztefutbola Bergarakoekin edota Donostiako Santa Klara uhartean gozatutako egun-pasa.

Donosti Cup txapelketari esker, Gipuzkoa alderik alde zeharkatu dugu; Zumaiatik hasi, eta Lezo, Andoain... eta beste hamaika lekutan izan gara. Kirol jarduera soil bat baino askoz gehiago da txapelketa; baikortasuna, talde lana, laguntasuna, besterekin errespetua, norberaren mugak ezagutu eta gainditzea, irabazten zein galtzen ikastea...

Era berean, urrutira joan, leku berriak ezagutu eta ekintza ezberdinak egiteko aukera paregabea izan dugu aurten ere; Arcachonen eta Murillo de Gallegon izan gara. Bizipoza, atsendena eta abentura... Hori guztia eskaini digute uztaileko ekime-

nek, baina lanean jarduteko momentuak ere izan ditugu; klausuro erakusketako zaintza lanak eginez, esaterako. Antolamendua, talde gatazkak, sakrifizioa, herrigintza.

Irudimena lantzeko aukera ere izan dugu, eta Euskal Jaiko kartel lehiaketan parte hartu dugu. Izan ere, jabetuta gaude sormena eta parte-hartzea bezalako baloreen garrantziaz.

Ezin aipatu gabe utzi, bestetik, urte osoan zehar ardurak hartzeagatik gazteek izan dituzten sariak! Horren adibide dira raftinga, paddle sup-a, hidrospeed-a eta saltinga; eta ekimen horien oinarrian dauden gozamenak, arriskuei aurre egitea, ardurak hartzea, eta autonomia.

Eta jakina, istripu txikiak ere izan ditugu aurten. Lerro hauen bitartez, beraz, aupa Xabi, Kerman eta Ibai! Zein garrantzitsua den arazoei aurre egiten ikastea...

Bizipen esanguratsuak izan eta bizitzarako ikasi!

Debako Gaztelekuko hezitzaileak



Arimadun lur puska

Nondik gatoz? Nora goaz? Nor gara? Galdera hauek bidelagun izan ditu gizakiak gizaki denetik.

Jakina da gure lurraldearen bizkarrezurra osatzen duten mendilerroak mineralez osatuak daudela, gure hezurdura bezala. Ibaiek eta itsasoek ura eta gatzak garraiatzen dituztela gure gorputzean odolak egiten duen bezala. Eta lurrazuhaitz eta landareen bitartez arnasten duela, guk birikekin egiten dugun moduan.

Gure gorputza sortzeko eta bere funtzioak mantentzeko beharrezkoak diren osagai guztiak elikagaietatik lortzen ditugu eta hauek, aldi berean, lurretik.

Bestalde, hildakoan era batera edo bestera lurrera itzultzen gara, bizitza elikatzen jarraitzeko.

Hortaz, lurretik gatoz, lurrera goaz eta lurra gara. Arima duen lur puska bat besterik ez.

Eta agian gakoa hor dago. Zer da arima hau? Nondik dator? Eta nora doa?

Gizakia gizaki denetik erantzunaren bila badabil, ez naiz ni izango erantzuna emango duena.

Beraz, bideaz gozatzen saiatzea besterik ez zaigu geratzen. Nire kasuan ahal dudanean oinutsik, Ama Lurraren lurrazalak nire azala laztantzen duen bakoitzean gogoratzen baitut nondik natorren, nora noan eta zer naizen.



**JON
ETXANIZ**

iritzia



Kolorez Blai Udalekuak

"Piraten bizitza hobereena da, lanik gabe, ikasi gabe, Kolore Anitzekin! Banderak ontzi eta kalaberaz, aurrera, pirata denak!"

Ondo astindu ditugu banderak kaleetan zehar, benetako piraten antzera, eta gure dantza eta kanten bitartez herria menperatu dugu. Gogotsu ibili gara, uharte ezberdinetakoa piraten laguntzaz talde ederra sortu dugu eta.

Udalekueetan ohikoak diren ekintzak egi-teaz gain -Aldrebes Eguna, txangoak

mendirra eta hondartzara, adibidez- piratekin zerikusia duten ekimen asko egin ditugu -uharteetako banderen bila aritu gara, abordajea egin dugu...-. Eta, udalekuei amaiera animatua eman ahal izateko, txarangaren laguntzarekin festa musikatua egin genuen. Gainera, nola ez, Gamarrako igerilekuetara egindako irteerarekin eman genien amaiera lau aste zoragarri hauei.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, beraz, Debako txarangako kideei. Baita Zuhatza

Euskara Elkarteari ere; zuei esker bagoaz gure koloretako ametsa egi bihurtzen. Amaitzeko, aipatu nahiko nuke aurtengo begirale taldea oso ona izan dela. Lan bikaina egin dute eta giro ederra izan dugu Kolore Anitz taldean. Urtean zehar lanean jarraitzeko gogoia piztu zaigu. Beraz, adi datozen ekintza berriei, eta udara zoriontsua izan bitartean!

Miren Berasaluce, Kolorez Blai udalekuen koordinatzailea





Zuhatza
Luzuzko eskola



Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarateak elkarlanean antolatutako ipuin lehiaketan saritutako laugarren lana duzue hemen. Bigarren saria lortu du ipuin honek, DBHko bigarren zikloan. Garazi Garrido ikaslearen hitzak dira.



GARAZI GARRIDO
(2. zikloko bigarren saria)



Bai, jauna

XXIII. mendean gaude, Marte planetan. Atzo bueltatu ginen Lurretik, oporrak amaitu dira eta. Hala ere, pozik nago. Nire etxean, behar besteko estaldura dago, eta ezinbestekoa da hau nire lagunekin komunikatzeko, beno, eta gure eguneroko bizitza egiteko. Gure egunerokoa azkarra da, oso. Behintzat hori esaten du nire aitona. Denok daukagu gure mugikor pertsonala, gure bigarren garuna izango balitz bezala. Gure eskuak honen erabilerara moldatu dira, lehen hamar behatz genituela esaten da behintzat; orain, herriz, lau. Zertarako hainbeste? Gazteak, ni barne, betaurrekoak eramatera derrigortuta gaude, izan ere, medikuek diotenez, oso ohituta baikaude hainbeste denbora argi distiratsu bati begira egoten. Orduan zertara geunden ohituta? Aitonari galdetuko diot beste batean.

Eskolarako bidean, kaletik nindoala, zinta magnetiko mugikorrean igota, SSTY aurkitu dut. Ai, barkatu! Ahaztu baino lehen, nire kodigoa KPT9 da, baina nire pasahitza ez dizuet esango 😊. Gaur lehen eguna da, eta ohikoa denez, nire lagunaren oporraldi zoragarriak kontatzen duen mezua irakurri behar dut. Oraingoan Saturnora joan da, eta bere eraztunen gainean ibili dela argitu dit, bueltaka eta bueltaka. Ni Lurrari zergatik deitzen dioten planeta urdina azaltzen ari nintzaion bitartean, deskonektatu duela ohartu naiz. Honek haserretu egin nau.

Eskolako sarreran, amorrak bultzatuta, alarma sistema klikatu dut eta berehala ezagutu dute nire kodigoa. Laugarren aldiz izan delako, zigortuta eraman naute gela zahar bat garbitzera. Inoiz ikusi ez dudana gela bat. Garbitzeko gogo gutxi dudanez, gora eta beheara ibili naiz inguruko apal bakoitza bistatzen. Denbora askoan ireki ez den gela dirudi. Gela zatar eta zikin honen izkinan, iluntasunean, identifikatu ezin dudana objektu bat ikusi dut. Berehala gerturatu naiz, ikusminez blai. Aurpegi arraroak jarri ditut hau ikustean. Herdoilduta dagoe-

la ematen du. Lodia da, laukizuzen formakoa. Kolore laranja ikusten da bereziki, eta sinbolo arraro batzuez josita dago, antzina-ko letrak, antza. Begira eta begira nago, baina ez dut tramankulua pizteko botoirik ikusten, ezta usb-a sartzeko sarrerarik ere. Pantaila falta zaiola konturatu naiz geroago. Hau bai arraroa. Misteriotsua da benetan.

Eskolako motxilan, ordenagailu eramangarria eta musika entzuteko zenbait aparaturen artean leku bat dago, objektu misteriotsua sartzeko besteko lekua.

Ez nuen uste hain pisutsua izango zenik; hori dela eta, lurrera erortzen utzi dut. Erditik apurtuko balitz bezala zabaldu da. Ez dut inoiz horrelakorik ikusi. Zer izango ote da hau? Aitonak bere aitona entzundako paperezko liburuaren bat izango al da?, galdetu nion nire buruari. Denbora gehiago galdu gabe motxilan gorde dut, leku seguru batean ikertuko nuela pentsatuz, izan ere, edozein momentutan irakasle bat ager daitenke.

Txirrina jo bezain laster, eskola atzean, ezkutatutako kantoian batean jesarri naiz, aztertzeko irrikan. Azalean, *"Ostegunak"* agertzen da. Nola jakin zer esan nahi duten sinbolo horiek? Batek daki.

SSTY nigana dator, adarra jotzeko aurpegiarekin. Korrika eta presaka, altxor ezezagun hura bizkar atzean ezkutatu dut, babesteko, nahi gabeko keinu bat bezala.

Ez dakit zergatik, baina objektu berezi eta baliotsu bat soinean dudala sentitzen dut.

Irribarre faltsu batekin hartu dut laguna, baina barrutik haserre nago, pikutara bidaltzeko gogoz.

Etxera nindoala, zinta magnetiko eta mugikorrean muntatuta, "e-booktegrira" joatea pentsatu dut, itzulpen programa bat aurkitzeko asmoz. Hemengo arduraduna XIZD da, oso neska jatorra eta bitxia. Ez da teknologian oso trebea; horrek besteekiko komunikazioa murrizten du. Hala ere, beregana jotzen duzun guztietan, beti du eran-

tzun egoki bat. Kasu honetan ere, horrela izan da:

-Itzulgailua nahi duzula? zein motakoa? zein hizkuntzatik? eta zein hizkuntzara? -galdetu du interesatuta.

Ez dakit zer erantzun, eta bi aldiz pentsatu gabe liburua erakutsi diot. Bere begi handiek eta bere aho zabalak harridura adierazten dute. Eskuarekin bere atzetik joateko adierazi dit, gela ezkutu batera. Bertan, eskannerrak liburuaren azala ikertu du eta, ordenagailuari konektatuta dagoenez, hemen agertzen dira erantzunak eta azalpenak; Euskara hizkuntzan idatzita dagoen liburu zahar bat da, orain dela bi mende idatzia. Lur planetako herri baten hizkuntza izan zen, eta oraindik ere bada. XIZD-k jarraitu du, gaiari buruz zer edo zer badaki eta:

Marten bizi garenok ez dugu hizkuntzarik. Dena ikonoak dira, tamalez.

Gizakiak, Lur planetatik irtetera behartuta egon ginen, klima aldaketa eta airearen kutsaduraren ondorioz, eta hizkuntzak bertan gelditu ziren. Lurraren egoerak txarrrera egiten zuen denbora pasa ahala, ez zuen euririk egiten, eta egiten zuenean bat-bateko zaparrada izaten zen; horrek uholdeak eragiten zituen.

Nahiz eta teknologian aurrerapen izugarriak egin, balore, tradizio eta hainbat gauza galdu genituen gure irteerarekin, hauen artean garrantzitsuenetakoak hizkuntzak izan ziren.

Triste noa etxera, hutsune bat nuela sentituz. Leihotik begira, Lur planeta eta Ilargia ikusten ditudala, aitona hurbildu zait.

-Zer gertatzen zaizu laztana? Pentsakor ikusten zaitut.

Gertatu dena azaldu diot zehaztasunik gabe, eta segidan galdera hau egin diot:

-Zergatik ez dugu euskara hizkuntza zabalitzen Marten?

Irri txiki batez eta itxaropen handiz erantzun dit:

-Bai, jauna.



HERRIKOAK BERRIKETAN

KALEZ KALE TXISTULARI TALDEA

Lehendik Deban izandako hainbat txistulari eta atabalariren arrastoari jarraituz (Jose Urain *Txanbolin*, Faustino eta Julian Urain, Ramon Azpeitia, Ramon Unanue, Jose Sukia, Rafael Arostegi, J.A. Garate, Mugika anaiak, Angel Iriondo...) sortu zen Kalez Kale Txistulari Taldea. Lehen oinarriak Miren Gurutz Ugartek jarri zituela esan liteke, bera hasi baitzen Deban txistua ume eta gaztetxoei erakusten Tolosatik Debara bizitzera etorri zenean.

Handik urte batzuetara, 1986an, Deban Txistularien lehen alardea antolatu zen Jose Sukia, Nere Itziar Iriondo eta Sabin Arrizabalaga txistulari hil berrien omenez eta esan liteke emanaldi hartan hartu genuela lehen aldiz parte Kalez Kaleko txistulariok talde bezala, Ainhoa Agirrebaltategiren gidaritzapean.

Lehenengo ohiturei jarraituz, txistulari taldeak beti jardun izan du herriko taldeekin kolaborazioan (Gure Kai dantza taldearekin, Debako Erraldoiekin urte

batzuetan herriz herri eta abesbatza eta bandarekin ere bai hainbat ekitalditan) eta festetan parte hartuz. Eta ondo daki-zuen bezala, asko dira Deban ospatzen ditugun festak: San Rokeak, Euskal Jaia, Zoro Feria, Santa Zezilia, Gabonak, Santa Ageda, inauteriak, San Juan eta San Pedro... eta horregatik, nahiko bete-ta izaten dugu gure "urteko agenda".

**"Adin guztietako txistulariak
biltzen gara taldean;
eta ederra da benetan horrek
ematen dion aberastasuna"**

Inguruko herrietako txistulariekin ere badugu harremana eta horregatik herritik kanpo jotzea ere asko gustatzen zaigu, hala nola Ondarroan, Mendaron, Donostiako eta Hondarribiko txistularien alardean, Dantzari Txiki egunetan (Oñati, Ibarra eta abar). Aurtengo ekai-

nean, adibidez, Eibarren izan ginen I. Txistu Egunean parte hartzen.

Momentu honetan 23 txistularik osatzen dugu taldea eta adin guztietako jendea biltzen gara; ikasten ari diren txistulariak, urte askoan taldean gabiltzanak, ahal dutenean edo festetan jotzera hurbiltzen direnak, urte batzuetan taldea utzi arren berriro bueltatu direnak etab. Eta horrek taldeari ematen dion aberastasuna ederra da benetan, eta ea horrelaxe jarraitzen dugun urte askoan.

Astero elkartzen gara entseguak egiteko eta udan Debako Nazioarteko Folklore Jaialdia eta San Rokeak prestatzen aritu gara buru-belarri. Aurrera begira baditugu ideia berriak ere, lehen urtero egiten genuen txistulari alardeari forma berria eman nahi baitiogu herriko auzoetan ere joaz eta formatu dinamikoagoa emanez. Prestatzen dugunean emango dizuegu horren berri ere! Bitartean, eskerrik asko denoi zuen aldetik jasotzen ditugun txaloengatik!





Zuen jolasa

Oso goiz zatoz gaur Antonio, ohi-koa baino goizago. Batzuk lo daude oraindik, baina ari gara gutxika denok esnatzen. Begira-begira gaituzu, ea zer dugun gaurkoan. Zepiloa atera duzu orduan, betiko moduan. Hori ikusita, nagiak ateratzen hasi gara, bat lehenengo, bestea gero, zure igurtzien zain, gogotsu. Hortzez edo buztan puntaz harrapatzen ez ditugun izkin amorragarri horiek goxatzen trebea zara gero! Dotore jartzen gaituzu gainera. Nola zaintzen gaituzun Antonio; nola maite zaitugun. Luzaro, oso luze, aritu zara gaur gainera, zeinen ondo!

Pilarren soslaia bistatu da bat-batean atean, ez genuen aspaldian ikusten. Jaiotze, gaixoaldi eta horrelakoetan soilik etortzen da Pilar ukuilura. Segidan beste bat, bi eta hiru pertsona ere agertu dira, denak ezezagunak. Zer festa klase da gaurkoa?

Arrapaladan hasi dira mugitzen gizon berriak, baldar eta zakar, eta bultzaka altxa gaituzte lurretik. Ene! Zer gertatzen da hemen? begiak estali dizkirate eta ziztada latzak sumatu ditut bizkarraldean. Eskatutakoa egin nahi dut behingoz lasaitu daitezen baina ez dakit nora zuzendu, dena beltz dago. Ziztada eta bultzada artean aldapa batean erori naiz belauniko, tiraka jaso naute eta gorantz bultzatu. Bertan lotu naute sokaz; laster, nire azalaren kontra sumatu ditut lagunen gorputzak, pega-pega eginda, ezkerrekoa dardara batean. Non gaude baina?

Lurra mugitzen hasi da segidan, oinak izango balitu lez, gero eta azkarrago. Eta gure oinak balantzaka hasi dira, ezin orekari eutsi. Hitzak entzuten ditugu aurrean baina lur mugikorra ez da gelditzen luzaaroan. Jota nago, etzan egin nahi nuke, baina soka laburregia da, ezin ditut hankak tolestu. Bertan egin ditugu dagoeneko denok gure beharrak eta bi oin putzu batean sartuta ditut, blai. Atera egin nahi dut behingoz hemendik. "Lasai, laster pasako da hau" esan diot neure buruari eta goizetako zelai berde freskoa itsatsi dut gogoan.



Halako batean lurra gelditu egin da. Zalaparta berriro. Eskuak han eta hemen gure azalean zakar, hauek ez dira Antonioren semearen laztanak. Zerbait ari gara gaizki egiten, ez diegu nahi dutena ulertzen, edo akaso ez dira konturatzen ez dugula hemen egon nahi. Eraikin txiki batean pilatu gaituzte eta begietako estalkia kendu. Etzan eta lo seko geratu gara bertan.

Esnatzearekin bat, zelai berde freskoa desegin zait gogoan, ametsa bailitzan. Berehala agertu dira gizon berri batzuk; tiraka zutitu eta handik atera gaituzte. Leherketa-hotsa eta ziztada gogorrek ipurtaldean. Korrika abiatu gara makilei ihesi gero eta estuagoa den jendarte zaratatsu batean gure lekua egin nahian. Segidan, zabalgun handi ooooso zaratatsu bat, barruti berri bat, iluna.

Zalaparta. Askatu naute. Aurrean atea zabalik, parez pare. Ziztada atzetik eta atera naiz arrapaladan zabalgun handira. Hots eta soinu arrotzak, ozen, ozenegi. "Ospa hemendik, azkar" neurekiko. Iritsi naiz trostan ataka batera ihesi, korri eta segi horma hertsia, pasabide, arrakala baten peskizan, ez da tarterik inon. Urduritasuna, nekea. Iskanbila ez da baretzen, alde egin nahia beharra da orain. Segi eta korri, ihes. Urduritasuna izua da orain; nekea zorabioa. Segi eta segi, korri eta korri, ihes!

Seko gelditu naiz, erdi-erdian. Zutik, erne, gizontxo xeble bat parean, niri begira, oihal handi batekin erdi estalita. Orainxe ez dut ezer ulertzen, baina badakit gakoa hori dela, elkar ulertzea. Gizontxoaren beldurra suma dezaket hemendik, "lasai, ez duzu oihal horrekin estali beharrik, ez naiz hemendik mugituko eta Antonio datorrenean alde egingo dugu gure artadi-zelaietara, ez izan beldurrik".

Ziztada bortitza bat-batean saihes-



Bar LOREA
"Orotariko tartak etxean eginak"
Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



MAXI BAR
Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



pean, zugana gidatzen naute, zuzen. Oihala pasa didazu behin eta berriz gainetik. Orain ulertu dut, “zer nahi duzu nirekin jolastu? Ez nago eroso, dena arrotz zait, baina hori bada baldintza, jolastuko dugu, eta gero banao hemendik”.

Algarak, zalaparta eta hotsa handituz doaz, eta berriz zugana jo dut, oraingoan, aldiz, oihala beharrean, loredun arantza-makilak sartu dizkidazu barruraino. Astindu dituzakar, baina mina jasanezinago egin zait eta ez dituzerauzi gainera. Oldartu egin naiz orduan zugana, zu korrika urrundu zara, eta amorrua-

ren itsuak ez dit atzetik gerturatu zaidan zaldia ikusten utzi. Akuilu luzearekin zulatu dit izter gaina zaldi gainetik esku batek. Odol-erreak dituz oinak, indarra uneka ari naiz galtzen erreka horietatik, orbela bailitzan.

Geldi berriro, ezer ulertu ezinik berriro, sinesgogor berriro. Odoletan blai, amorru bizian; amorrutan blai, odol bizian.

Gizon edo delako erdi-estalia jolasaren garaile gisan, tente-tente erdian. “Jolasaren arauak hautsi dituzu, izaki zauritu suminduen legean, paretik kenduko zaituz”. Hurbildu orduko atera dituzu, ordea, loredun arantza gehiago eta oraingoan txikitu nauzu erabat.

Abaildurik, arrastaka, artadizelaiak datozkit gogora, eta eguerdiko eguzkia, izpiek azala barruraino zulatzen digutenekoa. Irudiko izpiek goxatu dizkidate neurri batean gaurko zuloak, baina balantzaka nabil, ezin gelditu.

Oharkabean nigana dator gizon-txoa, ez diot beldurrik igartzen orain, ausart dator, bizkor. Halako batean, haustura hotz batek zatitu nau, erdi-erditik. Ziplo jausi naiz odolputzuaren erdian. Isiltasuna nagusi bat-batean, eta i l u n t a s u n a . Ahalegin handiz zabaldu dituz begiak. Hesiaren atzetik, pertsona

mordoa eserita parean. Ustekabean, begiak pausatu zaizkit finko, zabalzabal, Antonio, ikusi zaitudanean. Bakea jabetu da nitaz orduan, bake epel eta goxoa. “Zatoz bizkor, Antonio, goazen etxera!”. Bat-batean, begira harrapatu zaituz, hau poza!

Ez duzu zirkinik egin, ordea. “Baina zergatik ez zara behingoz hurbiltzen Antonio?, zergatik ez zara...? Zer-ga-tik...?? Zer.....”

**“Geldi berriro,
ezer ulertu ezinik berriro,
sinesgogor berriro.
Odoletan blai,
amorru bizian;
amorrutan blai,
odol bizian”**



Txosna Batzordearen egitaraua, abian

San Roke festei abuztuaren 14an (asteazkena) emango zaie hasiera ofiziala, baina ordurako abian egongo da Txosna Batzordeak antolatutako egitaraua.

Hilaren 8an ekin zioten txosnak muntatzeari eta abuztuaren 18an kenduko dituzte zumarditik. Bien bitartean, hamaika emanaldi eta hitzordu ezberdin antolatu ditu Batzordeak. Ekimen horietako batzuk Udalaren egitarau ofizialean txertatuta daude (ikus ondorengo bi orrialdeak), baina ez guzti-guztiak. Azpiko kartel honetan duzue ikusgai “Herri boterea eraikitzen!” leloarekin prestatu duten ekimenen zerrenda osoa.

DEBako TXOSNA GUNEAN **HERRI BOTEREA ERAIKITZEN!**

ABUZTUAREN 8 18.00 TXOSNA BATZORDEA 19.00 TXOSNA BATZORDEA	ABUZTUAREN 16 17.00 DEBATAKETA 18.00 DEBATAKETA
ABUZTUAREN 19 12.00 JOLASO 13.00 TXOSNA BATZORDEA 14.00 TXOSNA BATZORDEA 15.00 TXOSNA BATZORDEA	ABUZTUAREN 27 19.00 TXOSNA BATZORDEA 20.00 TXOSNA BATZORDEA
ABUZTUAREN 29 12.00 TXOSNA BATZORDEA 13.00 TXOSNA BATZORDEA 14.00 TXOSNA BATZORDEA	ABUZTUAREN 30 12.00 TXOSNA BATZORDEA 13.00 TXOSNA BATZORDEA 14.00 TXOSNA BATZORDEA

ERASO EZ! **TXOSNA** **DGA** **PIBIDEKIN** **LAGUNTZA** **ARRAZOIA** **LAGUNTZA** **LAGUNTZA**

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Ute guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnua.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

Abuztuaren 15ean ospatuko dugu Umeen Eguna.

Animatu eta parte hartu!!

Aurten abuztuaren 15ean (osteguna) ospatuko dugu Umeen Eguna, eta egunean bertan antolakuntzako ei laguntzeko prest egongo diren boluntarioak behar ditugu. Bide batez, noski, ekimenetan parte hartzeko gonbidapena ere luzatu nahi diegu herritarrei.

Egun osoko egitaraua izango da Umeen Egunean -alboan duzue ikusgai-.

11:00etan dantzariak irtengo dira Luzaro eskolatik eta 11:30ean kalejira egingo dugu musika eskolatik. Bertatik irtengo dira danborrada, erraldoi txikiak eta karroza. Etxean erraldoi edo buruhandiren bat izanez gero, kalejiran parte hartzea polita litzateke. Aurten, "Piratak" gaia aukeratu dugu karrozarekin mozorrotzeko, eta umeak pirataz jantzita gurekin irteera gonbidatzen ditugu.

Plazako jaialdia eguerdian izango da, eta jarraian Banda Gazteak kalejira egingo du, kaleak alaituz. Arratsaldean, berriz, umeen pilota partidak izango dira Aldatsen, eta jolasak Berasaluze plazan.

Egunari bukaera emateko, iluntzean Ezten Giroekin egingo dugun erromerian musikaz gozatzuz gorputza mugitzeko aukera izango dugu.

Umeen Eguneko ekimenak aurrera ateratzeko, laguntza behar du egunean bertan. Animatuko al zarete?

Edozein zalantza izanez gero, jar zaitezte gurekin harremanetan:

debakoumeeneguna@gmail.com

655742705

Umeen Eguneko antolatzaileak



Abuztuak

13

20:00: Desenkajonamendua eta entzierrilloa.



Festen hasiera

18:00: San Roke festen hasiera.

Kanpai errepika eta udaletxeko balaitik **txupinazoa** botako du AMAGOIA ARRIETA kirolariak San Roke festen hasiera emateko. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin **zapi gorria jantziko** zaio San Rokeri.

Jarraian: **Kalejira**, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

19:30: Udaltzatza elizara abiatuko da Alkate Soinua entzunez. Gure Kai dantza taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatzeko ditu. Ondoren, **Hilarion Eslavaren salbea** abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

22:30: Danborrada Ozio-Bide elkarrearen eskutik.

01:00: Erromeria MUGI PANDEROA taldearekin, karpan.



Umeen Eguna

09:00: Diana, Banda Gaztearekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

09:30: Entzierroa, umeentzako.

10:00: Artisau feria.

11:00: **Kalejira** Luzaro eskolatik. Plaza zaharrean San Roke txikiari dantza egingo zaio (dantza+korporazioa).

11:30: **Kalejira** musika eskolatik (danborrada eta erraldoi txikiak). Berasaluze plazan Tatiago eta erraldoi txikien dantza.

12:00: **Plazako jaialdia:** danborrada, herri-kirolak, dantzak, zezenak eta errektadoreak.

13:00: 2018ko abuztuaren 1etik aurtengo uztailearen 31ra bitarte jaiotako **haurrei zapi gorria** jarriko die alkatetako udal pleno aretoan.

16:00: **Umeen pilota partidak**, Aldats pilotalekuan.

16:00-18:00: **Umeentzako jolasak: puzgarriak, ur-puzgarriak, gladiadoreak...** Berasaluze plazan (ur-puzgarrietarako bainujantzia ekartzea gomendatzen da).

19:00: **EZTEN GIRO erromeria, plaza zaharrean.**

23:00: **Kontzertuak**, karpan: **NOGEN, PELAX eta SUSTRAJAH BAND.**



San Roke Eguna

07:00: **Diana**, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: **Entzierroa.** Ondoren, enbolatuak Arrizabalaga Anaïen ganaduekin.

09:30: Herritarren agurra San Rokeren irudiaren aurrean, plaza zaharrean: Gure Kai taldekoen **Ezpata Dantza**. Jarraian, herritarrek ermitara igoko dira prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, **Larrain Dantza** egingo da plaza zaharrean (Lizarrako Gaiteroekin eta erraldoien eta buruhandien konpartsarekin).

12:30: **Aurrekua** Foruen Plazan, Gure Kai dantza taldearen eskutik. Ondoren, **enbolatuak** Arrizabalaga Anaïen ganaduekin.

Jarraian: Txaranga, kaleetan zehar.

18:00: **Bertso saioa** karpan: Amets Arzallus, Inigo Izagirre, Amaia Iturrioz eta Haritz Mujika.

18:00: Umeentzako ekitaldia Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa, Tamameseko (Salamanca) La Ventana del Puerto ganadutegiko zezenekin. Toreatzaileak: Sergio Nunes eta Leonardo dos Santos. Sobresalientea: Francisco Campos. Ondoren, enbolatuak.

Jarraian: Kalejira Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

20:30: Kontzertua plaza zaharrean: THE LUCILLES.

23:30: Su artifizialak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).



Marinel Eguna

08:00: Kardantxuloak Kantuan. Irteera Angulero kaletik.

10:30: Jorrai Dantza herriko kaleetan, Gure Kai dantza taldearen eta Kalez Kale Txistularien eskutik.

12:00: Kardantxuloak, bertsolariak (Julio Soto eta Nerea Elustondo) eta Txanbezpel, Sokagin kalean.

15:00: Bazkari herrikoia, Aldats pilotalekuan.

17:00: Jotapasa, Ostolaza kalean: abeslariak (Txanbezpel eta Pato) eta dantza herrikoiak.

17:30: Kalejira, Lizarrako Gaiteroak eta txarangarekin.

18:00: Entzierroa. Ondoren, gazte kuadrillen arteko jokoak plazan.

20:30: Erromeria, karpan: INGO AL DEU? taldearekin.

00:00: Larrain Dantza, plaza zaharrean.

00:30: Kontzertuak karpan: ESKEAN KRISTO, SKABIDEAN&THE BLACK BIRDS, eta POTATO.



Kanbo Eguna

07:00: Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak Arrizabalaga Anaïen ganadurekin.

10:30: Ongietorria Kanboko ordezkari, udaletxean.

11:30: Udalak eskainita, Zaharren Egoitzan, hamaiketako adinekoentzat. Trikitilariak izango dira, eta zezenketarako 9 sarrera bikoitz zozketatuko dira.

12:00: Herri-kirolak, Berasaluze plazan.

12:30: Enbolatuak (Arrizabalaga Anaïak). Jarraian, txaranga.

13:00: Herri-kirolak plaza zaharrean.

13:30: Herri-kirolak Arakistain plazan.

18:00: Umeentzako ekitaldia, Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa: Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo ganadutegiko zezenekin. Toreatzaileak: Javier Poley eta Clemente Faisant. Sobresalientea: Francisco Campos.

Ondoren: Erraldoi eta buruhandien Agurra plaza zaharrean, Debako Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

00:00: San Rokeren irudiari ohiturazko zapi gorria kenduko zaio.



Erasoen aurrean:

- Larrialdietan SOS deiak: 112
- Ertzaintza - Eibar: 943 53 17 00
- Telefono bidezko laguntza 24 ordutan: 900 840 111 / 016
- Debako udaltzaingoak: 943 60 80 40

Abuztuaren 15ean, SexuBizi Babes Gunea egongo da zumardian, 00:30etik 3:30era bitartean

SAN ROKEAK 2019

Abuztuaren 14tik 18ra



Aurtengo jaietako kartela
duzue goikoa.
Mara de Maria da egilea.

ABUZTUAK 14-18

-**San Roke jaiak.** Egitaraua eta jaien inguruko kontu gehiago aurkituko dituzue aurreko orrialdeetan.

ABUZTUAK 22, OSTEGUNA

-20:00. **Kontzertua:** Urvál Ensemble klarinete lauokotea, Santa Maria elizako klaustroan (36. Udako Musikaldiaren baitan).

ABUZTUAK 29, OSTEGUNA

-20:00. **Kontzertua:** Miren Urbietta (sopranoa) eta Ruben Fernandez (pianoa), Santa Maria elizako klaustroan (36. Udako Musikaldiaren baitan).

ABUZTUAK 30, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko mobilizazioa, plazan.

IRAILAK 8-16

-**San Nikolas jaiak Lasturren.** Hilaren 8an hasi eta jarraipena izango dute hurrengo egunetan.

IRAILAK 14, LARUNBATA

-50. **Kaleko Margo Sariaketa** (16 urtetik gorakoentzat). Lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai izango dira ondorengo astean zehar Agirre jauregian.



IRAILAK 28, LARUNBATA
-EUSKAL JAIA.

Egun osoko egitaraua izango du garai berriko XXII. Euskal Jaiak: zarpantzarrak, dantzak, marmitako lehiaketa, bazkari herrikoia, erromeria...

Elkartasun tonbola

-San Roke jaietako **tonbola** antolatuta du Debako Caritas elkarteak. Boleto guztiak agortu bitartean egongo da zabalik (abuztuaren), Portu kalean (Sagarna denda zegoen lekolean).

Erakusketak

-Elizako klaustroan: "**Magalean**", Iratxe Hdez. Simal (abuztuaren 31ra arte).
-Udaletxean: azken urteotan **Kaleko Margo Lehiaketa**n sarituak izan diren lanak izango dira ikusgai (irailaren 9tik 22ra bitartean).

FederArte Debarock Festibala

-Irailaren 7an egingo da **FederArte** (surf, kultura eta musika). Egitarau zabalak prestatuko dute hitzordurako; Yako Surf-ek bere Stand Up Paddle proba egingo du, EHSF-GSF zirkuituaren baitan, eta festibalean ekimen artistiko eta kultural ezberdinak izango dira aukeran.



Ikasturte berrirako izen-emateak

-**Musika eta Dantza Eskola.** Plazak bete arte mantenduko dute zabalik matrikulazioa. Leku libreak daude oraindik ondorengo irakasgaietan: Musika eta Mugimendua (4 urteko haurrentzat), bonbardino, danborra, flauta, gaita, korala, perkusioa, tronboia, tuba eta txistua. Irailaren hasieran eman dezakete izena interesatuek.

-**Ostolaza Udal Liburutegiko** Irakurketa Klubeko hurrengo saioetan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago. Hurrengo saioak: urriaren 30ean -Arkaitz Canoren *Fakirren Ahotsa* liburua ardatz hartuta-, eta azaroaren 27an -Samantha Schwebelinen *Pijaras en la boca* lanarekin-. Informazioa: 943 19 25 60 eta ostolaza@deba.eus.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **abuztuak 16, 17, 18, 26, 27, 28, 29.**
irailak 13, 14, 15, 23, 24, 25, 26.

Burgoa Zuazo: **abuztuak 12, 13, 14, 15, 30, 31.**
irailak 1, 9, 10, 11, 12, 27, 28, 29.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGUA ZUAZO: 667 338 890
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 17 eta 24

BURGUA ZUAZO: abuztuak 31 / irailak 7

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

RPS:183/12

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

Taxi Alain Deba
LIZ.-ZK.: 3
WiFi
www.alain.taxideba.eus
636 135 008
alain@taxideba.eus

Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!
Zuhatz
943 191 383
berriketan@zuhatza.com



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



Marije CASTRO Iribarren

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA **28 URTEKO ESPERIENTZIA**

Tel.: 677 557 615 **DEBA**



urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

 N.º 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitadeen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net




50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

LENTZERIA
Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxo: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala


SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com



Hazitik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com

k
kutxabank



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**HERRIKO JAIETAN,
ZAPIA LEPOAN
ETA EUSKARA
AHOAN!**

*Ondo pasa!
Iraibera arte!*

Zuh-tza
euskara elkarfeak deba



**AISIALDIAZ
GOZATZEKO
HAMAIIKA
ARRAZOI
ETA MILA
AUKERA...**

Zuh-tza
euskara elkarfeak deba



**HERRITIK ETA
HERRIARENTZAKO
EUSKARATIK
ETA EUSKARAZ!**

